

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inaxi Altuna Etxeberria

*Donostia,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Martutene auzoko Antondegi baserrikoa, hiru ahizpatan zaharrena zen. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, gertuko beste baserri batekoa, Paradakoa. Umetatik ibili zen baserriko lanetan. Animaliak oso gustuko izan ditu beti, baita loreak ere. Amarekin joaten zen Bretxako azokara, zaldi-karroan, “tratuarekin”: berdura saltzera. Esnea partitzen ere ibiltzen zen, etxez etxe, bera bakarrik, ama postuan zegoen bitartean. Moja kolegiara joan zen 14 urte arte, uniformeak jantzita. 18rekin Donostiako Parte Zaharrera joan zen bizitzera, amaren aldeko amona zaintzeko; gero, Martuteneko amona ere hartu zuen etxean. Libre geratzen ziren logelak alokatu egiten zituen, diru pixka bat ateratzeko. Altzoko Karlos Artola harakinarekin ezkondu zen; Bretxan izan zuten harategia. Lau seme-alaba dituzte. Iñaxitaren ahizpa gazteena geratu zen baserrian, eta plazara joaten jarraitzen du.

Zintak

DON-015

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-21
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aitaren aldeko familiaren historia

- **Erref:** DON-015/003
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amonaren historia kontatzen du, eta aitarena. Aitona Ameriketara hil zen. Antonegira zergatik joan ziren bizitzera. Osaba-eta Kontxara joaten ziren hondar bila. Gabarrariak. Ama Parada baserrikoa zen.</p>

Transkripzioa

- Nere aita jaio zan, hemen, San Jeronimo kalean. Historia da pixkat... basarrin bizi zan nere amonaren anai zaharrena. Batzuk jun zian Ameriketara. Zian bederatzi senide eta bea bakarrik arreba, beste guztiyak mutillak. Eta jun zan Ameriketara... Jun zian batzuk Ameriketara. Bost. Eta nere amona ezkondu eta jarri zan bizitzen, ba, hemen, San Jeronimo kalean. Baiño anai zaharrena bizi zan basarrin, Martutenen, Antonegin. Baiño gertatu zan lehenbiziko semia jaiotzeakuan, ba, hil ziran ama eta semia. Partuan hil zian. Eta, kalro, nere amonaren senarra, ba, Ameriketara jun zan, ba, esaten zan bezela "a probar fortuna" edo hola. Ez? Ameriketara jun zan. Eta gero, ba, hil in zan han. Eta amona zegon alargun. Gelditu zan alargun. Eta bere semetxoa, pues, lagun bat zeukan hemen, Alde Zaharrian, Fermin Calbetonen, ba, oso laguna zuna, ba, harek zaintzen zion. Eta bera jarri zan lanian, ba, hor bazan famili bat oso... ez dakit nola esan, oso ospetsua, ingenieruak-eta zian, Madrideko metropolitanoa in zutenak, Txurruka ta Otamenditarrak. Eta udaretan-ta hola, ba, hemen bizitzen zian zean, Donostin, Boulevarrian, Elkano kalia, hor bizi zian. Eta ordun, beak in zun lana urte batzutan, dexente, ba, in zun etxe hortan /etxiortan/. Eta gero asteburutan eta, bueno, ba, bere semiakin moldatzen zala eta hola. Baiño geo, hil zanian, bere anaia basarrikuak esan zion, ba, juteko basarrira mesedez bizitzea. Eta nola nere aita, pues, pozik juten zan basarrira, ba, asteburutan. Eta geo nere osaba hoiek, bueno, aiton-osaba hoiek, ba, etortzen zian Kontxara idikin hondarra eamatea. Baratzetako-ta, hondarra lurrari nahastu ta hondarra oso ona zan lurra harrua egoteko baratzetako. Zeatik baratza beti egin izan da asko gure etxian, Donostia ekartzeko zeak, barazkiak. Eta ordun, ba, amona jun in zan semiakin. Semia, pues, pozik baita. Baiña hamalau urte arte jun zan hemen La Salleko Los Angeles ikastetxia badao, San Bizenteko aldamenian; bueno, oain dao Orfeon donostiarra, baiño urte askotan egondu zian La Sallekuak. Eta horrea juten zan ikastetxea. Eta gero, hamalau urtekin, amona jun zan basarrira. O... mutillak hamalau urte zitunian, ba, jun zian. Eta ya han gelditu zian. Eta nere aita, ba, pues, gero ezkondu zan nere amarekin, beste hurrengo basarri bateko neska batekin. Eta gu, ba, han jaio giñan eta han bizitu izandu giñan.

- Zure ama ze baserritakua zan?

- Parada. Bai. Parada basarrikua. Eta hola.

2. Baserrian bizitzen gustura

- **Erref:** DON-015/004
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Beste amonaren historia: baserritik parte zaharrera joan zen bizitzera. Berak zaindu zuen. Baserrian gustura bizi zen. Behiak, idiak, behorra. Belar lanak. Itaurrean, eskolara joan aurretik. Sagarrak.</p>

Transkripzioa

- Gero ni etorri nitzan... Gero hamen Donostin bizi genun beste amona. Hua etorri zan basarritik aiton-amonak eta hemen etxe bat erosi zuten eta bizitzen jarri ziran Fermin Calbetonen. Baiño gero aitona hil zan, alargundu zan amona. Amona alargundu zanian, ba, bakarrik gelditu zan, eta hasi zan baita burua galtzen, eta laguntza bihar zun. Eta hola. Eta orduan, ba, neri planteatu ziaten etxian, ba, ia etorriko nitzan amona zaintzera. Eta baietz. Ni basarrin oso gustora bizitu nitzan. Oso gustora. Beti, bueno, aitakin. Zaharrena nitzan; anaiyik ez zeon. Baiño animalik eta ikuillun ta... Bueno, egiya esan, gure behiak neska-koskor tartian ohitu ziran, zeatik etortzen giñan eskolatik eta batek azpiyak iten zitun, bestiak jana ematen zien, bestiak ez dakit ze... aitak behiak jezten zitun bitartian. Izaten genitun deozenrdi bat behi o hola, bi idi eta zaldiya. Bueno, bihorra, Donostira etortzeko. Eta hola. Eta nei asko gustatzen [zidan] ikuillua txukun-txukun jartzia eta ondo eskobillatzia zeak, ganaduak, eta... ez dakit. Gustatzen zitzaidan, bai. Eta geo, ba, beti kanpuan zelaian aitakin. Zeatik, klaro, laguntza bihar zun eta beak, ba, belarra ebakitzen bazun etxian janariya emateko, ba, nik biltzen nun belarra, kargatzen nun gurdiya... Eta hola. Eta gero eskolara, ba, goizian, udaberri aldian, artua iteko garaiyan ta hola, bai, ittaurrian, lurra prestatzeko. Eta, bueno, ba, goiz-goiz-goiz jeiki eta, bueno, igual ordu pare bat o ibili ittaurrian, ganauan aurrian, goldian o lo ke sea.

- Ganauak gidatzen, ez?

- Aurretik, bai. Aita goldiakin atzetik eta ni aurretik, zuzen ibili zitezen. Eta geo, etxea jun, garbitu, uniformia jantzi, liburuak hartu eta eskolara beatzitarako. Eta pozik. Eta udaran, ba, metak egin, belarrak bildu, sagar denboran sagarrak bildu eta... bueno, pues, bai, ondo.

3. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-015/005
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Ondoko baserriko umeekin jolasten zuten. Txingotan, sokasaltoan. Uztaia. Gordeketan. Neska-mutilak elkarrekin. Neguan, parrokiako zinemara. San Juan sua. Garoa.</p>

Transkripzioa

- Gogoratzen zea txikitako jolasekin?
- Bai. Bai. Geo, baita ere aurreroko basarriyan zian sei senideko taldetxo bat eta jolasten giñan asko. Jolasten giñan gordeketan eta txingotan. Guk genun terraza bat. Terraza bat, bai, haundiya. Eta han jolasten giñan sokasaltuan, jolasten giñan txingotan. Zeakin, klerionakin o, zeak egin, marrak egin lurrian. Eta gero zer? A! Eta gero baita ´re jolasten giñan —eta orain ez da ohiturik; jakiña, orain ez dago— uzaia. Behiyak jezteko izaten zian baldiak. Ez? Eta azpiin izaten zuten, ba, basian, uzaia.
- Egurrezkuak?
- Ez, ez, ez, zinkazkoak, zink. Bai. Uzaia. Eta hua, baldia zahartzen zanian, zea, uzaia kendu eta ibiltzen giñan arotan. Osea... Bai, uzaiaikin. Iten genun alanbriakin, oaindik gogoratzen naiz ze egitura zun, alanbre lodi xamar batekin. Ta “prrrrrrr” ibiltzen giñan harekin jolasten, korrika batetik bestea ibiltzen giñan. Eta gordeketan asko. Eta, bueno, pues, holako gauzak.
- Neska-mutillak elkarrekin ala neskak alde batetik eta...?
- Ez, ez, ez, neska-mutillak. Bueno, neska-koskorak. Bai, bai. Eta, bueno. Eta gero, ba, negu partian, adibidez, ba, zinera juten giñan. Parrokin genekaun zinia. Bueno, gizon batek botatzen zigun. Zegon, hola, lokal bat eta botatzen zizkigun, ba, `El gordo y el flaco´, ´Cantinflas´, ´Fantomas´, Oesteko pelikulak eta, botatzen zizkiguten negu partian. Eta gero, ba, ez dakit besterik. Ez naiz hola... jolasteko gauzak ez naiz konturatzen asko. San Juan suak egiten genitun. Eta...
- Eta ze botatzen zenuten San Juan sura?
- Ai! Aitak errita iten ziun, zeatik izaten zian [“mazalostua”] esaten geniyon guk, ba, artuan zuztarra. Artuan zuztarrak aitak eukitzen zitun jasota, ba, txerriri azpiya iteko ta hola. Zeatik hua txikitu ta, bueno, azkenian ez zeukan ez arantzik ez ezer ta bueno, txerrintzako. Eta guk hartzen genitun [mazalostuak] eta surtara botatzen genitun, zeatik harek iten zun sua ikaragarriya. Eta geo etortzen zan bronka atzetik. Baiño, bueno, bestela gauza berexirik ez, zeatik ez zeon... Eta garoa o [...] botatzen bagenun ere, pues, ez zan komeni, zeatik... Baiño hola.
- Garoa zertarako erabiltzen zan, azpiyak egiteko?
- Azpiyak iteko, ganauentzako. Bai. Azpiya iteko. Eta besterik ez dakit. Momentu hontan hola gauza berexirik...

4. Belar ondua eta sega lanak

- **Erref:** DON-015/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Behien jatena. Belar ondua. Metak. Aitak esaten zuten sega eta behiak jezte ez zirela emakumeentzat. Nora joaten zen mezetara. Ubako Ama Birjina eta erreformatorioa.</p>

Transkripzioa

- Eta zer ematen zenien jaten behiei?

- A! Behiai? Ba, ematen genien, ba, belarra, belar berdia. Eta geo negun belar ondua. Belar ondua, ba, etxian iten zian hamalau bat meta eo hola. Eta... Bueno, etxian, etxeko terrenoetan. Eta ohiturak, bueno, ba, igandean, adibidez, aita juten zan, zea, gogoratzen naiz, ba, belarra ebaki bihar zanian ekartzen zitun hola barriyuan izaten zian gizon bat eo beste basarrikuak ziranak baiño kalia bizi ziranak. Ordun, nola bera bakarrik zeon belarra ebakitzeko, zeatik gure aitak esaten zun beti behiyak jertzia eta segan egitia ez zirala emakumientzako lan egokiyak. Pues, indarra bihar zalako edo. Eta ez zigun uzten. Ordun, ba, bea bakarrik zeon. Eta ekartzen zun beti bat eo beste belarra ebakitzeko laguntzea. Eta pentsa nola aldatzen dian gauzak, ba, zeon, Loiolako kuartelen gaiñian zegon —ez dakit zuk jakingo dezun— Uba, Ubako Ama Birjiña. Zegon reformatorio bat. Bai. Eta zan eliza bat oso polita. Eta han egoten zian mutillak, reformatorioa, pues, badakizu, hola, bihurri xamarrek. Mutil gaztiak, e! Eta ordun han izaten zan meza goizeko seietan. Eta nola barriyuan —ez dakit seguru zan zazpi... Nik badakit gu zortzi t´ereditako mezeta juten giñala, jeneralian. Ez dakit zan zazpi t´erditan eo zortzi t´erditan lehenbiziko meza. Geo izaten zan meza nagusiya hamarretan. Baiño juten zan, belarra zeonian, seietako hara, mezetara. Igual hiru ordulaurdeneko bidia, e! Seietako mezetara. Geo etxera etorri eta belarra moztea. Eta geo gu juten giñan, pues, ya ordu bat eo beste zemazkitenian ebakitzeko, ba, eamaten genien kafia eta pixkat, badakizu, mantentzeko ritmua, ezta? Eta hola.

5. Sagardoa eta dolarea

- **Erref:** DON-015/007
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagardoa. Sei zaku, karga bat. Barkaiztegira eramaten zuten sagarra. Etxean ere bazuten dolarea. Patsa, ganaduantzat. "Majerak". Kupelak nola garbitzen zituzten. Pitarra.</p>

Transkripzioa

- Eta sagardoa eta...

- Etxian iten genun. Onbre, sagasti haundiyak genitun; bi biñipin haundik zian. Eta sagarduak, ni gogoratzen naiz, ba, sei zaku, sei sagar zakui deitzen zitzaion karga bat. Eta gogoratzen naiz urte batian bildu genitula larogei karga. Larogei karga uste det ziala, bai. Sagar pilla. Eta Barkiztegia, Barkiztegia eamaten genitun. Sagardotegia Barkiztegi badakizu nun daon Martutenen? Barkiztegi. Bueno, ba, hara eramaten zian. Etxeako uzten zan zeozer. Etxian tolaria bagendun eta, bai, iten zan, baiño, bueno, ez gehiegi; etxeako aiña juxtu eta ya esta. Geo beste basarriko lehengusuak eta, bueno, izeba-osabak eta etortzen zian gure tolarea, zeatik jende askok, basarri askotan ez zan tolaria. Gurian bazan. Eta hola. Sagarra, ordun, eamaten zan Barkiztegia eta geo zea bidez aitak ekartzen zun jornada bat patsa. Patsa deitzen zitzaion, ba, sagarra estutu, prentsatu, eta gelditzen zan azal hori. Eta azal hori, ba, ganaduk oso gustora jaten zuten, eta zan

pentsu bat bezela. Eta gero, ba, etxian toki egokiyak, hola, majeran bat baldin bazegon hutsa... Majerak zian ganaduk jaten zuten...

- Aska?

- Aska. Bai, majera. Eta izaten zan beti bat edo beste hutsik. Txekorren majerak. Eta, ordun, ba, han gu neska-koskorak gaiñian pun-pun-pun, zanpatzen, zanpatzen, zanpatzen, hua dana bete arte. Haiek. Eta hola. Eta besterik, ba, ez dakit. Eta geo, sagardua iteko izaten zian kupelak. Kupelak haundiyak baldin bazian, ba, barrura sartu eta kandela batekin eta zepillu zakarrakin hua garbitu. Gu sartzen giñan, ni biñipin askotan. Eske nola nitzan zea, umia. Bueno, umia´re ez, ume bat ezin da sartu ta ezin du. Baiño, adibidez, ba, hamabi-hamalau urtekin-ta, ba. Klaro, nere aita ez zan gizena, e, mia zan, baiño beti ere gizonezko batek hezurak eta... Eta holako, ez dakit, holako zirrixku bat zun. Eta han sartu...

- [...].

- Ni bai. Behin o behin mariatzen hasi izandu nitzan. Baiño ez, jeneralian normalki. Eta gero garbitzian...

- Eta zerekin garbitzen zan?

- Urakin.

- Urakin eta zepillo batekin?

- Urakin eta zepilluakin, bai. Ez dakit jaboik botatzen zitzaion. Ez dakit.

- Igual komeni ez, ezta?

- Igual ez, ez dakit. Urakin biñipin bai; eta zepillu zakarrakin.

- Eta zenbat kupel izaten zenituzten?

- Ba, asko ez. Asko ez. Bat haundiya... Geo nere aita ere ez zan oso edalia. Estomagotik ere pixkat delikadu ibiltzen zan. Ardo-ardoik ez zun edaten; mosto bakarrik. Eta ordun, ba, sagardua´re ateatzen zan, baiña norbait etortzen zanian ta hola. Guk pixkat edaten genun, baiño pitarra. Pitarra zan sagarduai, lehenbiziko sagarduai ura nahastuta. Ura nahastuta. Oain pitarrak ez da. Oain pentsatzen det nik askotan pitarra egiten zala, ba, sagardo purua lujo gehiegi zalako. Ez dakit. Ura nahastu eta ordun, ba, edaten zendun eta ya esta. Eta hola. Gero enbotellatu´re batzuk iten zian sagardo batzuk. Eta hola.

6. Esnea eraman eta txerrijana jaso

- **Erref:** DON-015/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Txerrijana. Donostiara joaten ziren esnearekin, etxez etxe. Zaldiak bazekien bidea. 13 urterekin hasi zen. Tratua. Ama Bretxan egoten zen.</p>

Transkripzioa

- Eta txerriei zer ematen zenieten jaten?

- Txerrijana.

- Bai, Donostia etortzen giñan egunero. Eta ordun, ba, etxietan, ba, jasotzen zuten patata-azalak, naranja-azalak... gauza hoiek. Eta guk eamaten gendun etxietaa esnia. Eta han egoten zan mahaian gaiñian o nunbait kazo bat. Eta ya bazenekin ze nahi izaten zuten. Eta batzutan, ba,

han egoten zan begira zea, etxeoandria edo neskamia o lo ke sea. Hemen ibiltzen giñan, zentruan. Bueno! Nik askotan esaten diet gure seme-alabai: “Baiña nola ez dakizutela? Hemen jaiyuak zeate ta nola ez dakizutela holako kale nun daon?”. Baiño, klaro, nik ere... Eta aberea, adibidez, pues, ohituta zeon ze portaletan gelditu bihar zun: Garibai kalia, Elkano kalia... Egunen batian zeozergatik ez bazenun etxe hortara jun bihar, ba, beste aldeko riendatik tira bihar ziozun, zeatik hua hara juten zan. Oso azkarrek dia zaldiyak, e! oso azkarrek.

- Orduan, esnia partitzen ibiltzen zineten?

- Bai. Bai. Udar, ni eskolaa juten ez nitzanian... Bueno, baiño hau pixkat ya zea xamarra nitzanian, haundi xamarra, zeatik zaldi-karruakin ezin da ibili zortzi urteko ume bat. Baiño hamalaukin ta hamahirukin ta hola, pues, bai.

- Eta zu bakarrik hamahiru urtekin?

- Bai. Bai. Hamahiru urtekin bai. Nola ez? Eta ama egoten zan puestuan, berdura saltzen, tratuba saltzen. Orduan “tratuba” esaten zitzaion, ez dakit zergatik. “Tratuba saltzea” o “tratu asko”, “tratu gutxi”. Ez? Bueno, berdura. Eta nik, pues, esne-partiketa.

- Nun egoten zan, San Martin...?

- Ez, Bretxan. Bretxan egoten zan. Bai. Nere ahizpa ´re bai, Bretxan egoten da. Eta bueno. Ta gero askotan baita ´re gertukuak baldin bazian, Legazpi kalia eo... Grosea ez genun ohiturik, ez giñen juten ezertara. Baiño Okendo, Legazpi, Elkano... hor genitun hartzailliak, gehiyenak. Eta, bueno, ba, ni hola, bueltaka.

7. Lehengo bideak eta oinetakoak

- **Erref:** DON-015/010
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Zein barazki saltzen zituzten esaten du. Garaian garaikoa. Letxuga. Ordu erdiko bidea zaldi-karroan. Lehengo bideak nolakoak ziren. Oinetako garbiak eskuan hartuta. Abarkak.</p>

Transkripzioa

-Ze berdura eramaten zenuten?

-A, berdura? Bai, ba beida: azanaiyuak, tipulak, e... azak, letxuba... eskarola kizkurra, eskarola lisua, borrajak... e, zer gehiyo? Bainak, babarrunak... Bueno, loriak ´e bai. Loriak, sisofilak eta hola, baita. Gauza bakoitza bere garaiyan, eta ba adibidez, zeukazun letxu sail bat, eta euki behar zenun pronto hua bukatzen zaneako beste sail bat atzetik zetorrena. Kalkulatuta beranduxeo... landatu eta... hola. Bai.

-Eta ze ordutan juten ziñeten, oso... oso goiz?

-Ez, ez, jendia hasteako. Jendia gutxi gorabehera ba oaingo morun, bai. Etortzen giñan ba... Bai, jaiki goiz in behar zan, jakiña, baiño bueno, ez dakit ordua. Tardatzen genun ordu erdi bat Martutenetik honea [Parte

Zaharrera]. Bueno, kamiyotik, Martutene kamiyotik; geo jetsi´re in behar zan. Kamiyo jeneraletik gure etxea ba... birez bire joten baziñan ordu erdi bat, pasatxua. Geo... ta atajutik jeisten baziñan... ez naiz hitz egiten ari karroakin, e. Atajutik, birexidoretik ba... ba klaro, guk beti korrika eskola, atajotik korrika ibiltzen giñan; ordu laurden bat, hoge minutu, ez? A, eta gero beste gauza berexiya: ba, zea, e... oain ba bire guztitan dao hormigoia, ez? Zea, kamiyuan dao... zea, nola esaten da? Cemento... ez! -Alfalto?

-Asfaltua, asfaltua. Baiño toki guztitan, adibidez uain gue etxera ere cementoko, zementuzko biria do, baiño ordun ez. Eta, eta oain izaten dianak ba “carreteras comarcales” eta hola... ba barriyoko karretera jenerala kenduta, bestiak bazeuden. Ba ez zeukaten. Eta egualdi ona iten zunian izaten zan izugarrizko hautsa, eta egualdi txarra iten zunian lohiya! Eta ordun ba danok, basarritakuak, e, ibiltzen giñan, emakumiak, eskun oiñetakuak, garbik hartu, oiñetakuen barrenen galtzerdik jaso, sartu... Beida, Idoia, zuk ikusi zazu, etxe... barriyoko lenbiziko etxian... Ba etxia zan portala ta... hiru bizitza zitula uste det, bai. Ba portaleko atian atzia eoten zan... baiño hola! Pilla bat, zapata zaharrez beteta! Zeatik mezetara adibidez... jun behar zenun mezetara, ez? Eta emakume guztik eskun zapatak hartu, eta ttapa-ttapa-ttapa-ttapa, zapata zaharrak jantzita, eta hara jun, eta han galtzerdik jazten, ligakin. Eta zapatak ba... zapata garbik. Zapata normalak, batzuk takoiakin, bestiak takoiyik gabe... Eta portal hartan jantzi, oiñetakuak aldatu eta mezetara... edo Donostira o eozain gauza, ez? “O sea”, pentsa zazu. Eta klaro, ba holaxe zian biriak-ta, ez zian oain bezelakuak, ezta pentsatu´re.

-Abarkarik-eta erabiltzen zan?

-Hombre, nik etxian ibili izandu itut, baiño neretzako ez zian komoduak abarkak, ez, ez, ez. Zeatik askotan joten ziñan... ebiya iten zunian, ez? Eta... abarkak, galtzerdi gabe baldin bazian biñipin, txirrist, buelta ematen zuten, eta, klaro, ebiya sartzen zan barrura, ura... Eta buelta ematen zuten, eta gelditzen ziñan abarkak oiñan gaiñian. Eta bueno, behiñ baiño gehiyotan belarra hola biguña baldin bazeon, oiñutsik igual, ez? Belarretan. Baiño abarkak bai, ibiltzen zian, oain baiño gehiyo; bai, asko, askoz ere gehiyo.

8. Tranbia eta gero, autobusa

- **Erref:** DON-015/011
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:29:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Donostiara hasieran tranbian, gero autobusez. Martuteneko etxe gehienetan, zaldi-karroa. Autobus berezia zesterentzat.</p>

Transkripzioa

-Nola etortzen ziñaten?

-Autobusian. Oaingo autobusa, zea Hernaniko gorri hoiyek? Ya bazebiltzan, nere garaiyan bueno, lehenbizi zeon, ez, lehenbizi-lehenbizi zeon tranbia,

ateatzen zan Peñaflorida kaletik, hor zeukan basea o, zea tokiya irtetzeko, eta Peñaflorida kaletik atea, eta Hernaniaiño oain topua joten dan biri hortatik? Amara inguratuz, hortikan... Eta aurrenien ba, hori, ta gero ya laister ba jarri zan, autobus hoi, bai. Eta etortzen zan autobus bat, Martutenen adibidez ba, etxe gehienetan zeon, zaldi-karrua, baiño ez dandantetan, eta Astigarraga ta, Hernani aldetik-eta etortzen zianak, bazeon kamioi bat, ba xesterentzako zana, zan hola kaiyola bat bezela, eta zitun apalak, bi aldietan, eta zan autobusa, baiño, jendian ordeztu ba xestuak jartzeko tokiyak zituna. Zea bai, autobus gorri hoitakua. Eta, bueno ba hori.

9. Semaforoak eta esnea

- **Erref:** DON-015/012
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:33:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Esnea ezkutatuta zaldi-karroan. Semaforoak jarri zituztenean gertatu zitzaiona.</p>

Transkripzioa

-Zuk ezagutu dezu debekatutako garairik, ezin zana esnerik saldu edo...

-A, bai! Bai, bai.

-Ta ezkutuan...

-Bai, bai, ezkutuan. Ez dakizu behin ze gertatu zitzaidan! Ba... ni gogoratzen naiz ba zaldi karruan eta lehenbiziko eunak eta... bueno, lehenbiziko egunak, debekatutako lehenbiziko egunak eta manifestaldiak eta izaten ziran, ezta? Eta guk ba... han zaldi karruan joten giñan exerita. Zea, ohola bat zeon, asiento bat, aldetik aldera eta exerita joten giñan eta... geo gaiñian eramaten genun, bueno, azpin'e bai, eta gaiñian manta bat; negu partian, e, pixkat abrigatzeko ta hola. Eta gero ba honea etortzen giñanian ba aberiai gaiñian jartzeko're bai, zeatik pixkat igual izardituta o egoten zan eta hola. Eta azpiko manta hua ba baita ibiltzen zan ba zenbait gauza tapatzeko, exerita aulkiyan gaiñian zeukazuna. Eta behin, ba... egun haitan jarri zituzten semaforuak, bai. Eta nik... bueno, ni nitzan injenua xamarra, bai, malizi gabia. Beti esaten zidaten, e. Eta egun batian ba hor Legazpi ta bulebarreko kruze hortan ba zeon... ordun esaten zitzayon zeladoriak. Bueno, munizipala. Eta ya hasita zeuden zeak, egun haitan zea, martxan jarri zituzten semaforuak, eta nik baneukan zalantza: "Jendia pasatzeko, eta hoi... nola ote dia? Gorriya, berdía...". Neukan honuntxaxio, oain Todo-Todo ta nola daude, zeon, bulebarrian? Bueno, pixkat zeago... e, Victoria Eugeniako jardin aldero, ba hor neukan karrua. Ta jun nitzan semaforo... zea, kruzea, ta guardiyai galdetu nion: "Oiga, por favor me podría decir cómo es esto de los semáforos. ¿Cuándo tengo que pasar? Yo estoy con aquel carro, y no sé, no estoy segura... ¿Me podría decir, por favor?". Eta ez dakit nik esan zidan eo ez zidan, baiño hor dator zeladoriori nerekin tapa-tapa-tapa-tapa, karroa. Altxatzen dit manta, eta nik han bi edo hiru marmita, esnez beteta! Bueno, nere ama... Eta danak ez dakit, Miserikordia o Zorroagara o ez dakit noa eramaten zituzten esne haiek. Nere ama zeon puestuan, eta... Puestua genun, e, hiru nabe zian,

buleba... zea, Bretxak zitun hiru nabe, hiru ate. Oain ere hor daude, ez? Eta ba erdiko nabian ba bertan, bertan. Jun nitzan, eta bueno, egun hartan ere zeee bronka! Oooo... "Zeiñi okurritzen zayo guardiyana jutia zuzenian, jakiñik hainbeste esne daukagula karruan, eta ez dakit zer eta badakit zer". Bueno, hori ez zait ahaztuko sekula!

-Ze in zizuten, kendu?

-Kendu! Jakiña, bai, bai. Eta kendu. Eaman zituzten, eta bueno.

-Isunik edo bai? Edo ez?

-Nehikoa bazan kentzia! Nehikoa bazan, bai... Uste det. Ez naiz gogoratzen biñipin isunik jarri zutenik. Eta holako... holako gertakizunak, bai.

10. Zaldi-karroa txukun-txukun beti

- **Erref:** DON-015/013
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:33:03. **Bukatu:** 00:36:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Bulebarrean edo Bretxa inguruan uzten zuten zaldi-karroa. Nolakoa zen beraien karroa. Toldoa. Igandero garbitzen zuen. Zaldiaren aparejoak betunarekin iluntzen zituen. "Canela" zaldia. Animalien izenak.

Transkripzioa

-Karrua bulebarrian aparkatzen zenuten?

-Bai, karrua...

-Ze tokitan edo nola izaten zan hori?

-Bueno, aparkatu ziteken enbarazuik iten ez zun erozein tokitan. Hor, Bretxa inguruan, bai. Ta guria zan... zaldi-karrua zan, e, ordun zian karruak ba koloretakuak; bueno, guria adibidez zan: kaja... kaja zan, e, berdía. Esmalteakin, berdía. Geo, e, kurpillak zitun gorrik. Llantak burnizkuak, eta kurpillak zea gorrikin. Eta... geo, guriak zun toldua. Danak ez zuten toldua izaten, e. Guriak zun toldua, hola tela... toldo plastifikatua bezela... plastifikatua bezela, hola; beltza, hola arkuan. Ta ni goatzen naiz ba igandero jaboia ta urakin garbitzen nula. Kotxe bat, kotxiak oain bezela. Bueno, oain kotxia ez det garbitzen nik, e, baiño bueno. Eta bai, jaboia ta urakin zea, afarrakin-ta ondo-ondo gero aklatatu... Eta aberian gustatzen zitzaidan baita... Nere aita esaten zun banidadiak zirela, baiño nei gustatzen zitzaidan asko betuna... zapaten betuna... zenbat kaja gastatu nitun! Aparejutan, zaldiyan aparejutan ba betunakin in, zeatik betunak... aparejuk zian ba... ba larruzkoak. Beltzak. Eta berriyak zeudenian zeuden ba zapata beltzak bezela. Baiña geo denboakin, ebiyakin ta /da/ ez bazenitun garbitzen, ba itsusitu iten zian, gelditzen zian ba... itsusi. Arratoi koloriakin. Ta brilloik gabe ta hola. Eta nik ematen zien zea, e... larunbatetan ba ematen nien... larunbatian ez, ostiralian, zeatik larunbata ta... Ez, ost... larunbatetan, bai. Igandian etortzen nitzan ni zaldi-karruakin, Donostira; esnia ekartzea bakarrik. Tratuba ez zan ekartzen. Eta ematen nien betuna, beltza. Eta... geo ba pixkat utzi legortzen, eta zepillua... zapaten zepilluakin brillua atea, o zapi leun batekin... Eta geo zuten baita ba... apaingarriak zitun. Zea, kabezalak zuen hemen hola... e, brontzezko tira bat. E... holako, hemen hola, eta geo kollaria eta hemen ere beste bi txapa, baita ere brontzezkoak. Brontze edo "latón"... "Latón", latoia, bai.

Eta Sidolekin ematen zenien eta gelditzen zian “brillante-brillante”, bakizu, latoia... ba bai, geo gelditzen da oso polita. Eta bueno.

-Karrorik dotoriena zuena izango zan...

-Ez, neria ez... Dotoriena ez, bazan... beste batzuk ere... Bazan Loiyolako neska batena, han kuartelan gaiñian bizi zanana... bueno, zoragarriya. Eta hola. Geo, zalduyak, azkenekua biñipin oso... zea zan, majua zan, zan... Canela zun izena, eta kanela koloria zulako. Eta kopeta zun txuriya... ta zan, zan... abere... ederra, polita. Eta...

-Animaliyak... behiyek ere izena zuten ala zalduyak bakarrik?

-Bueno, bueno... guk bagenitun behiyak... Klaro, neska koskorak giñan, eta... bat bakit izena zula Ceferino. Pentsa, behiya zan, ta Ceferino. Ba nere aitak erosi zulako Ceferi... zeai, Ceferino izena zun gizon bati. Han, hor, basarri batekuai. Eta hola. Eta gero bakoitzak genitun geren behiyak. Hiru ahizpak ba... hola, ez? Oain, bestela izena-izena... ba ez, lotuta eoten zian eta bueno.

11. Behizain, ipuinak irakurtzen

- **Erref:** DON-015/014
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:36:59. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Behizain larrean, ipuinak irakurtzen. Baserriko lanen banaketa. Amonak egiten zuen bazkaria. Zer jaten zuten. Txerria hiltzen zuten hasieran.

Transkripzioa

Bueno, larrea ere ateratzen genitun, behiak, udazkenian edo hola, ez? Eta askotan ba, ee, larrean zaintzen bazenbiltzan... ta nik beti eamaten nun ipuien bat, zeatik irakurtzia asko gustatzen zitzaidan. Eta tebeoren bat, ipuien bat eramaten nun eta jartzen nitzan han ixkiñan, behiak larrian zebiltzan bitartian ta halako batian nere aita beste zelai batetik: “Iñaxitaa!”. Iñaxita deitzen ziten. “Iñaxitaaa! Behi hoik!”. Ta igual aldameneko belardin zebillen bat edo beste. Eta ni irakurtzen! Eta, eta holako anekdotak, ez? Baiño... nik uste etxe geyenetan, klaro, etxe geyenetan anayak izaten zian, eta, anaiak izaten zianez, ba jeneralian ba lan hoiketari, ikuilluko lanetan eta zelaieko lanetan-eta anaiak ibiltzen zian, o mutillak ibiltzen zian. Hombre, berdura, berdura biltzen ta hori... Gure etxian, adibidez, amonak iten zitun etxeko lanak: bazkariya jarri... Bueno, lanak, nere ama ni goatzen naiz igandetari aitzen zan pues zeak ateatzen zitun salatiki eta geletatik, muebliak atera eta garbitzen, hautsa kentzen ta hola, igandetari, e! Baiño bestela asteguneko zea, ba amonak iten zun, etxeko martxa. Ama etortzen zan plazara, gu juten giñan eskolara eta... bueno, hamalau urte nitun bitartian, ez? Eta geo ba etxean. Eta hola.

-Zer izaten zan jateko? Bazkaltzeko eta, normalian babarruna?

-Honbre, batzutan babarruna, bestetan bainak, etxean geneukan... berdura ere bai... eske etxean genun! Tomatia ensaladan asko jaten genun, letxua're bai, lentejak... Eske Donostia egunero etorrita, ba eamaten zenitun... Geo, haragiya're bai, jeneralian ba xerra. Eta afaltzeko, ba arraia

ta... Ez da, e, ez da Goierriko herritan ta bezela, ez. Ez zan, zeatik han ba beste era batean, etxeko gauzak izaten zituzten, ez? Haragiya ta gauza hoyek ba biharbada... Ta etxean ba, aurrenetik txerria hiltzen zuten; bueno, ni gordetzen nitzan ganbarako azkeneko zokuan, haren karraxiyak ez aditzeko. Baiño...

-Urtero hiltzen zan txerriya?

-Aurrenetik bai, txerri bat hiltzen zan. Eske bizi zian baita nere amonaren anayak, bizi zianian, geyo giñan etxian eta ordun bai. Eta odolkiyak eta nola iten zian ta...

-Ta zuk in dezu odolkirik ala ikusi bakarrik?

- E, ikusi bakarrik. Oaindikan ni umia nitzan, baiño goatzen naiz. Eta taluak nola iten zitun amak baita, hori ere goatzen naiz, e.

12. Amona zaintzera, Donostiara

- **Erref:** DON-015/016
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:46:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Donostiako amona zaintzera joan zen, 19 urterekin. Aitak abestu egiten zuen behiak jezten. Ahizpa gazteenaren kontuak. Burua galduta zuen amonak. Aita gazte hil zen. Galtzerdiei puntadak hartzen ikasi zuen. Baserriko morroiak.</p>

13. Aztiekin sinesten zuen apopiloa

- **Erref:** DON-015/017
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:46:11. **Bukatu:** 00:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aztiekin sinesten zuen apopiloa. Baserria nolakoa zen.</p>

Transkripzioa

-[...] bazenutela bat, hori zer da?

-Ah bai, zan... ez ez, soldatakin.

-Soldatakin?

-Bai bai, soldatakin, hua zan gizon bat oso jatorra, baiño zan, aii ez dakit nola esan, gaurko egunian, bildurgarriya're bai alde batea, zeatik gabian, bueno genitun, gu bizi giñan gelak, "o sea" solairua, goiko, etxiak zun tartian malda bat, eta malda harek, malda hartan ba bihan zegon ikuilluba, ta gero malda hartan iyotzen ziñan, eta goiyan zegon etxeko sarrera, baldosakin ta, etxeko sarrera. Eta gero gorago, barrendik zeuden

eskaillerak, eta goyen zeuden ganbara, eta gero bi gela, beren ohiyakin ta, bi gela. Eta gela hoiyetako batian iten zun lo. Eta beak ba, zeukan buruan ba zeuzkan gauza raruak, oso gauza raruak. Aztiyak ez dakit zer ta bakit zer ta, eta miñak zeuzkan nunbait ba, klaro, edadeko persona zan, ez dakit nik zenbat urte, ezta errexa kalkulatzia.

-Sorgiñetan-ta siñisten zun?

-Aztiyak bai, eta esaten zun aztiyak ematen zizkiola min haiek, eta aztiyak bai, aztiyak. Igual nabaitzen zenun ganbaran zebillela gabian, baiño oso ona zan eh, oso gizon ona zan bestela. Baiño aztiyatan siñisten zun, eta berak zitun min guztik eta gaitz guztik aztiyak ematen zizkiyon, bai.

14. Etxez etxeko saltzaileak eta eskekoak

- **Erref:** DON-015/020
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:52:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Etxez etxe ibiltzen ziren kinkileroak. Zinkezko ontziak eta guardasolak konpontzen. "Burutea". Ezti saltzailea. Eskekoak. Arantzazuko fraideak.</p>

15. Eskola garaia

- **Erref:** DON-015/022
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:53:22. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Moja ikastetxeko uniformeak, 11 urtetatik aurrera. Eskola publikoan ibili zen aurretik. Erdaraz ez zekien, eta hantxe ikasi zuen. Mojak. Zigor arinak.</p>

16. Oiloak eta txakurrak

- **Erref:** DON-015/024
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:56:04. **Bukatu:** 00:59:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Oiloak. Oilotokia. Kota. Artoa. Arrautzak. Txita denak ezagutzen zituzten. Arratoi txakurra.</p>

17. Hernanira zinera eta dantzara

- **Erref:** DON-015/026
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Hernanira joaten ziren zinemara eta dantzara. Bederatzietako autobusean bueltatzen ziren. Aita zain.</p>

18. Txoriak tindatzen

- **Erref:** DON-015/027
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 01:00:42. **Bukatu:** 01:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua. Txolarreak nola hazi zituen, arto irinarekin. Platano kaxetako lastoa eta tintadun papera. Barizeentzat botika. Txoriak tindatu zituen. Txakurrei ere ilea mozten zien.</p>

19. Idiak uztarrian lotzen

- **Erref:** DON-015/029
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Idiak uztarrian lotzen zituen, amonak lagunduta. Nola lotu. Kopetakoa.</p>

20. Ferratzailearengana idiarekin oinez

- **Erref:** DON-015/030
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:08:25. **Bukatu:** 01:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ferratzailearengana, aitarekin idiari eragiten. Gero, bakarrik ere bai. Argoia. Martutenera. Zaldi gainean, mantarekin tapatuta. Galtzarik ez zuten erabiltzen. Behin bota egin zuen, eta ukalondoa atera zuen.</p>

21. Etxean, beti zuka

- **Erref:** DON-015/031
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:11:10. **Bukatu:** 01:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Beti zuka, etxean. Gurasoek senideekin hika. Apaizari berorika. Lagunen artean erdaraz egiten zuten asko.</p>

22. Senarra harakina

- **Erref:** DON-015/033
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:13:02. **Bukatu:** 01:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Senarra trenean ezagutu zuen, Tolosara bidean. Harakina, Bretxan zeukan postua. Lehenengo zita. Baserriko amona ere etxera ekarri zuen bizitzera, beste amonarekin batera. Senarra, Altzokoa.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com